



Arartekoaren 2022R-382-21 Ebazpena, 2022ko maiatzaren 12koa. Horren bidez, Gasteizko Udalari gomendatzen zaio trafikoko araudia hausteagatik jarritako zigor bat indargabetzea.

Aurrekariak

1. Herritar batek aurkeztutako kexa onartu du Arartekoak, izapideak egiteko, Gasteizko Udalak herritar horri jarritako zigor bat dela eta. Zigorra jartzeko arrazoia hurrengoa izan zen: *“Zirkulariorako erreian aparkatzea zirkulazioa bera oztopatuz”*, Pablo de Xérica kaleko 2. zenbakian, Udaltzaingo batek egindako salaketaren ondorioz (...).
2. Kexagileak adierazi zuenez, ibilgailua ez zegoen aipatutako lekuan aparkatuta. Gainera, aipatu zuen Pablo de Xérica kalean ez dagoela 2. zenbakirik. Hortaz, bere ustez, ezinezkoa da zehapena eragin zuen arau-haustea gertatu izana.
3. Kexa onartu eta aztertu ondoren Arartekoak Gasteizko Udalera jo zuen eta azaldutako gaiei buruzko informazioa eta zehapen prozedurari dagokion administrazio espedientearen kopia bat eskatu zion.
4. Administrazio horrek Arartekoari eman dion informazioaren arabera, arau haustea behar bezala frogatu da, agente salatzaileek ikusten dituzten nahitaezko salaketetan jasotako egitateei legez egozten zaien ustezko egiazkotasunean oinarrituta (Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 88. art.).

Era berean, Arartekoaren 2017R-1448-16 Ebazpena, 2017ko irailaren 13koa, aipatu da eta prozedura irregulartasunen garrantzi juridikoari buruzko zati batzuk transkribatu dira, eta ondorioztatzen da kasu honetan ez zaiola defentsa gabeziarik sortu interesdunari, ez eta zalantzarik ere salatutako egitateak gertatu ziren lekuari buruz. Hala ere, administrazio horrek ez du berariaz adierazi salaketaren datan Pablo Xérica kaleko 2. zenbakirik zegoen edo ez, baina, antza denez, implizituki aitortu zuen ez zegoela 2. zenbakirik, hemen jasotakoaren arabera: *“en dicha calle existen números impares”*. Gainera, ez zen zehaztu ibilgailua non zegoen, benetan salaketan adierazitako lekua ez bazen existitzen.

5. Erakunde honek uste du nabarmendu behar direla Udalaren zehapen prozeduraren administrazio espedientearen hurrengo gertakariak:
 - Agenteak interesduna salatu zuen (arrazoia: *“estacionar en carril de circulación”*, Pablo Xérica kaleko 2. zenbakian). Horrez gain, salaketaren *“oharrak”* atalean, honako hau gehitu zuen ibilgailuari lotuta: *“obstaculiza con intersección”*.





- Zehapen prozedura hasteko erabakiak zehaztu zuen salatutako egitatea honako hau zela: *“Zirkulariorako erreian aparkatzea zirkulazioa bera oztopatuz”* eta gertaera hori Zirkulazioko Erregelamendu Orokorren 94.2.a) artikulua arau hauste gisa tipifikatu zuen, arau hauste astuntzat jo baitzuen.
 - Tipifikazio eta kalifikazio horiek mantendu egin ziren ebazpen proposamenean eta zehapen ebazpenean.
 - Kexagileak bere babesean adierazi zuen ibilgailua ez zegoela Pablo Xérica kaleko 2. zenbakian aparkatuta baizik eta Iturritxu kaleko 3. zenbakian. Izan ere, ez da existitzen Pablo Xérica kaleko 2. zenbakia.
 - Berrespen txostenean, salaketa jarri zuen agenteak salatutako gertaera berretsi zuen baita ibilgailua Pablo Xérica kaleko 2. zenbakian zegoela ere.
 - Ez dakigu Udalak Pablo Xérica kaleko 2 zenbakia zegoen ala ez egiaztatu zuenik, ezta hori argitu zuenik ere. Eta ez da jaso ezta ere arau haustea non gertatu zen argitu zenik, benetan salaketan adierazitako lekua existitzen ez bazen.
6. Udal informazioa ikusita, erakunde honek zehapena zuzenbidearekin bat zetorren aztertu zuen eta, 2021eko irailaren 9an, Udalaren laguntza eskatu zuen hamar eguneko epean kexaren xede den zehapena indarrrik gabe uzteko prest zegoela jakinaraz zezan.
7. 2021eko abenduaren 1an berriz ere eskatu zitzaion Udalari zehapena ondoriorik gabe uzteko prest zegoen jakinarazteko.
8. 2022ko apirilaren 4an, Udalaren alegazioak jasotzen zituen idazkia jaso zen. Bertan jakinarazten zen elkargune bat oztopatu zela eta arau hauste astuna zela. Era berean, Udalak adierazi du ez dagoela zalantzarik ibilgailuaren kokapenari buruz, *“dando por hecho que si en un lado de la intersección de la calle empiezan los números impares, en el otro corresponderían los pares, lo que le ha valido al agente denunciante para determinar con exactitud el lugar donde estaba el vehículo turismo en el momento de la infracción, esto es, enfrente del número 1, obstaculizando la intersección”*.





Gogoetak

1. Aurrekarietan adierazi denez, administrazio horrek, Pablo Xerica kaleko 2. zenbakia dagoen ala ez argitu beharrean, nahitaezko salaketan legezko egiazkotasun presuntziara jo du, eta ukatu du, 2017ko irailaren 13ko Arartekoaren 2017R-1448-16 Ebazpenean oinarrituta, arau haustea non gertatu den identifikatzean egon litekeen errakuntzak zehapena baliogabetzeko duen garrantzia.

Horri dagokionez, Agerian utzi behar da 2017R-1448-16 Ebazpenaren lehen zatia, informazioan transkribatzen dena, ebazpenean aipatzen den Barakaldoko Udalak kexa espediente horretan erakunde horri emandako erantzunari dagokiola, ez Arartekoak dokumentu horretan egindako gogoetei.

Ebazpenean, Arartekoak adierazi zuenez, noski, zehapen prozedura bat izapidetzean izandako irregulartasunek ez dituzte jarduketak baliogabetzen, ezta irregulartasun horrekin ezarritako zehapena baliogabetzen ere; eta ez dago arau orokorrik gai horri lotuta, kasu bakoitza aztertu behar da eta.

Gogoratu zuen, halaber, trafikoari buruzko araudiak arau haustea gertatu zen lekuko salaketetan jasota uztera behartzen zuela, salatutako egitatearen deskribapenaren zati gisa [urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 87.2.c) artikulua]. Eta nabarmendu zuen gertaera horren zehaztapena, gertakariak gertatu ziren lekua barne hartuta, salatutako pertsonaren eskubidearen zati da, akusazioa ezagutzeko eskubidearen zatia, alegia; aldi berean, Espainiako Konstituzioaren 24.2 artikuluan jasotako defentsarako eskubideari loturik dagoen eskubide instrumentala da.

Arartekoak adierazi zuenez, era berean, arau haustea gertatzen den tokia zehaztean ematen diren balizko irregulartasunen garrantzia juridikoa zehazteari dagokionez garrantzitsuena da gertaerak gertatu ziren lekua zehatz eta ziur zehaztea eragotziko duen zalantzarik ez egotea, izan ere, horregatik, interesduna babesik gabe gera baitaiteke.

Arartekoak 2021eko irailaren 9ko idazkian adierazi zuen bezala, kasu honetan, Arartekoaren 2017ko irailaren 13ko 2017R-1448-16 Ebazpenean aztertu zenean gertatu zen bezala, ez dago argi gertaerak non gertatu ziren, eta Udalak ez du argitu arau haustea eman zen kaleko zenbakia zegoen ala ez, objektiboa den arren eta erraz egiazta daitekeen arren.

2. Administrazio horrek emandako informazioan, aipatu bezala, apelatu besterik ez du egin nahitaezko salaketan legezko egiazkotasun presuntzioa eta prozedura irregulartasunen garrantzi juridikoari buruzko doktrina orokorra. Hala ere, ez du aintzat hartu, egiazkotasun presuntzioak ezin dituela frogatu beste modu batera





egiazta daitezkeen eta salaketan jasota ez dagoen emaitza bat ematen duten egitate objektiborik, interesdunak salatutako egitateak ukatzen dituenen.

Udalak ez du justifikatu, ezta ere, zergatik uste duen kasu honetan arau haustea gertatu zen tokia ez egoteak ez duela eraginik interesdunarengan, zehazki, interesdunak gertakariak gertatu ziren lekua behar bezain ziur eta zehatz ezagutzeko duen eskubideari. Salatutako arau haustea non gertatu zen argitzeko hipotesi batek ez du argitzen zein kale elkartzen diren elkargunean, eta ez du indargabetzen, ezta ere, salaketaren arabera arau haustea Pablo Xérica kaleko 2. zenbakian izatea eta, ondoren, salatzailak hura berretsi izana (kexagileak adierazi ostean leku hori existitzen ez zela eta bere ibilgailua Iturritxu kaleko 3. zenbakian aparkatuta zegoela). Zehazki, agenteak berrespenean bertan hurrengoa adierazi zuen: *“el lugar de los hechos denunciados es correcto al indicado en el boletín de denuncia, Pablo Xérica nº 2”*.

Laburbilduz, erakunde hau ez dator bat administrazio horrek adierazitakoarekin, izan ere, ez dago argi salatutako gertakariak non gertatu ziren.

Bestetik, zehaztu behar da, kexaren kasuan, Arartekoaren 2017R-1448-16 Ebazpenean aztertutako ebazpenean bezala, ez dago Asturiasko Justizia Auzitegi Nagusiaren otsailaren 22ko 146/2012 Epaian kontuan hartu ziren bi inguruabarretako bat ere (1079/2012 AGE). Administrazio horrek Epai hori aipatzen du ere, halaber, arau haustea non gertatu zen zehazteko egon litezkeen akatsei baliorik gabeko garrantzia ukatzeko. Adierazitako inguruabarren arabera, ez zegoen inolako zalantzarik eta desadostasunik leku horren inguruan, salaketa unean jakinarazi baitzen, eta zigorra jaso zuen pertsonak onartu zuen lekua ezagutzen zuela.

Adierazitakoarekin bat eginda, erakunde honen ustez, arau haustea gertatu zen tokia ez egoteari buruz kexagileak izandako zalantzak argitu ez izana, eta leku hori zein zen zehaztu ez izana (salaketan adierazitakoa ez baita existitzen) kexagileak akuzazioa ezagutzeko duen eskubideari eragin dio, eta, horrenbestez, defentsarako duen konstituzio eskubideari ere (Espainiako Konstituzioaren 24. artikulua).

Ondorioz, ezin da bat etorri Udalak helarazi dionarekin, kexagilearen defentsa eskubideak eraginik jasan ez duela ulertuta.

Legezketasun akats hori gertatuz gero, ezarritako zehapena erabat deuseza izango da, eta, horregatik ere, ondoriorik gabe utzi beharko da (azaroaren 26ko 39/2015 Legearen 47.1.a) artikulua, Espainiako Konstituzioaren 24. artikulua arabera).



3. Gainera, Udalak salatutako gertakaria tipifikatu zuen azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretuak onartutako Zirkulazioko Erregelamendu Orokorraren 94.2.a) artikulua arau hauste gisa, eta astuntzat hartu eta zigortu zuen.

Hain zuzen ere, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, arau-hauste arin gisa tipifikatzen du lege horretan astuntzat edo oso astuntzat berariaz kalifikatu gabeko arauak ez betetzea (74. eta 75. artikulua).

Hori gertatzen da zirkulaziorako baino ez diren erreietan edo bide zatietan aparkatzeko debekua ez betetzearekin eta zirkulazioa oztopatu gabe aparkatzeko betebeharrarekin [40.2.a) artikulua, 40.1.c) artikuluekin lotuta, eta 39.3, hurrenez hurren], kexagileari ezarri zitzaion zehapena eragin zuten, eta horiek ez daude arau hauste larritzat edo oso larritzat tipifikatuta (76 eta 77. artikulua).

Testu bateginak arau hauste astuntzat jotzen du zirkulazioa larriki oztopatzen duen edozein lekutan aparkatzea [1. 76.d)]. Beraz, oztopoa larritzat jotzeko, ez da nahikoa oztopatzea, baizik eta oztopo larria izatea. Salaketa buletinaren arabera, ibilgailua "elkargunea oztopatzen ari da", baina oztopoa ez da astuntzat jotzen, eta ez da, ezta ere, arau haustea astuntzat jotzeko arrazoirik justifikatzen.

Zirkulazioko Erregelamendu Orokorraren 94.2.a) artikulua (hori urratzeagatik zigortu zaio kexagileari) hurrengo xedatzen du:

"2. Debekatuta dago honako kasuetan aparkatzea:

a) Aurreko paragrafoan azaldutako kasu guztietan, gelditzea debekatuta dagoen moduan."

Aginduak aipatutako aurreko apartatuak ezartzen du, beste batzuen artean, hurrengoetan gelditzea debekatuta dagoela: "zirkulazio (...) soil-soilik gordetako erreietan edo bide-zatietan" [c) apartatua].

Zirkulazioko Erregelamendu Orokorrek ez du arau hauste astuntzat jotzen zirkulazioko erreietan aparkatzea [1. 94.3 artikulua, 94.1.c)]. Eta hori, bestalde, ezin izango luke egin; izan ere, Espainiako Konstituzioaren 25. artikulutik eratorritako eskakizunen arabera, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bateginak egiten dituen arau haustek tipifikatu eta kalifikatu egin beharko lirateke eta.



Kexagilea zigortzeko kontuan hartutako arau haustea, beraz, ezingo litzateke arau hauste astuntzat jo, ezta hala zigortu ere, eta, arrazoi horregatik, ondoriorik gabe utzi beharko litzateke.

Horregatik guztiagatik, Arartekoak gomendio hau egin nahi dio Gasteizko Udalari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Indarrik gabe uztea kexagileari ezarritako zigorra, gomendio honetan azaldutako arrazoiengatik, eta, hala badagokio, horregatik ordaindutakoa itzultzea erabakitzea.

